dela eta, izurde eme berri bat ekartzen badugu zoora ez dira gehiago borrokatuko esan zion Sarak nagusiari, eta nagusiak baietza eman zion.

Hurrengo egunean, itsasontzietan joan ziren izurde eme berri baten bila, baina zooko uretako ateak ireki bezain laster, Mikik ihes egin zuen. Orduan zooan lan egiten zuten guztiek, beraien lana alde batera utzi, zooa zarratu, txalupak hartu eta Mikiren bila joan ziren.

Sara oso kezkatuta zegoen Mikirengaitik, arrantzale batzuk arrapatuko zutelako an.



Lau aste baino gehiago pasatu ziren eta ez zuten Mikiren berririk.

Irla baten ondora heldu ziren zoo guztiko langileak, irla guztiari bi buelta eman zizkioten, eta Sarak kolo handi eta sakon bat ikusi zuen. Barruan ura zegoen, eta barrura joatea erabaki zuen. Ez zuen ezer ikusten, linterna atera zuen eta Miki eta beste izurde eme bat ikusi zituen gosez orduan biak hartu eta zoora eraman zituzten.

Momentu hortatik aurrera Miki eta Biki ez ziren gehiago borrokatu eta Riki eta Ziki oso lagun handiak egin ziren.



Igone Legarreta



L.H. 3.zikloa

Paul Isasi

"Txirrindularitza gogoko dut"

# "Otsoa gizakiaren lagun"

Otsoa gizakiaren lagun



Bazen behin gizon bat Fernando deitzen zena eta lera txapelketetan ibiltzen zena bere txakurrarekin. Oso ona zen lau aldiz izan zen munduko txapelduna bere txakurrarekin eta oso harro sentitzen zen bere lorpenez.

Urteko lasterketa guztietan lehenengo hiruren artean gelditzen zen. Baina oraindik inoiz ere irabazi ez zuen lasterketa bat gelditzen zitzaion garaitzeko: Norbegiako txapelketa. Izugarrizko gogoa zuen lasterketa hura irabazteko beraz gogor entrenatu zuen.

Norbegiako lasterketaren eguna iritsi zen eta oso pozik zegoen ordura arte ez zelako inor ere bere mailara heldu.

Gaua iritsi zenean Fernando lo zegoen bitartean, bigarren sailkatua zegoen gizona Pedro, Fernandoren txakur gidaria jotzen hasi zen Fernando kanpoan geratzeko. Txakurra hil zorian geratu zen eta hurrengo egunean Fernando gertatutakoaz ohartu zenean oso triste jarri zen.

Bere penak uxatzeko asmotan Fernando basotik zihoan paseatzen, bat-batean tranpa batean otso bat ikusi zuen harrapatuta, oso argal zegoen, egunak eraman behar zituen hor horrela egoteko. Oso poliki askatu zuen minik har ez zezan. Askatu zuenean otsoa lasterka ihes egiten saiatu zen baina ez zuen lortu. Jarraian erori zen berehala Fernandok egoera ikusirik hartu eta etxera eraman zuen elikatzeko eta benetz osasuntsu egoteko. Egun gutxitan errekuperatu zen eta Fernandok hori ikusi zuenean proba batzuk egin zizkion ea nolako indarra zuen jakiteko. Fernando harriturik gelditu zen bere buruari hau galdetuz "Nola liteke horren

gaitzi egotetik horren ondo egotera horren denbora gutxitan?" harrigarria zen animalia horren itxura.

Lasterketen hasteko eguna zenean Fernando basora joan zen bere lagun berria oske uztera. Hasieran ez zuen joan nahi baina azkenean Fernandok konbentzitu egin zion bakarrik joateko.

Lasterketaren lehen eguna iritsi zen eta Fernando oso harro zegoen bere txakurrarekin. Eta erraz gainditu zien besteei.

Bigarren eguna ere berdin, Fernando garaile. Orain bi atseden egun zeuden aurretik. Gaueko ordu biak ziren eta Fernando lo zegoela, bat-batean Fernandok bere txakurrak entzun zituen oihuka. Zer pasatzen zen ikustera joan zen. Txabolara sartzean bere txakur gida oso larri zaurituta zegoela ikusi zuen eta albaitariarengana eraman zuen.

Bi ordu itxaron eta gero albaitaria irten zen eta hizketan hasi zen:

-Albaitari jauna nola dago nire txakurra?

-Orain hobeto baina ezin izango du lehiaketan parte hartu beste bost egunean gutxienez eta beharbada ebakuntza egin beharko diogu. Beraz lasterketatik erretiratu beharko zara edo beste txakur bat aukeratu.

Orduan Fernandori izugarrizko ideia bikaina burura etorri zitzaion baina egunsentira arte itxaron behar izan zuen.

Ideia hurrengoa zen: Otsoa eta bera oso lagun onak zirenez basora joango zen bere bila, baina lehendabizi epaileei galdetuko zien ea aukera zeukan hori egiteko.

Epailearengana joan zen eta hau esan zion:

-Epaile jauna, nire txakurra zaurituta dago eta erabili ahal dezaket beste bat nirearen ordez?

-Bai noski baietz. Erantzun zion epaileak




-Tira ba, mila esker.

Orduan ziztu bizian abiatu zen Fernando basorantz.

Basora iritsi zenean sastraka artean bila ibiltzeko zaratako bat entzun zuen. Zer zen ikustera joan zen eta otso bat ikusi zuenez pentsatu zuen bere laguna zela baina ez zen horrela izan. Beste otso bat zen! Baina Fernando konturatu zenerako beranduegi zen.

Otsoa bere gainera jauzi zen eta Fernando defendatzen saiatu zen baina ezin. Hasieran bat bakarrik zen baina gero gehiago etorri ziren, bi, hiru, gero lau... baina zorionez otso handiago bat agertu zen eta denak uxatu zituen.

Ea asmatzen duzuen nor zen? Bai, asmatu duzue, gure otso laguna zen eta Fernandori laguntzera zihoan. Albatu eta gero Fernandok eskerrak eman eta bere bisitaren arrazoia azaldu zion.

Fernandok berarekin ibiltzeko eskatu zion eta otsoak baiezkoa eman eta ziztu bizian lasterka.

Hurrengo egunean, Fernando bere "trakur gida" berriarekin hasi zen entrenatzen eta zirkuitua nola zegoen ikusten. Dena ongi prestatuta izateko pausorik zailena gainditzeko prest zeudela ematen, bakar ikusten zuten: beste txakurrekin ondo konpontzea.

Txakurrak biltzen ziren tokira joan ziren eta Fernandok otsoa sartu zuenean izugarrizko iskanbila sortu zen. Txakurrak eta otsoa borrokan hasi ziren. Zorionez Fernandok lasaitu eta lortu zuen denak ondo konpontzea.

Lasterketa eguna iristean Fernando urduri zegoen ea norbait konturatuko zen otsoa ez zela txakurra otsoa zela; baina ez zirudien inor horregatik kezkatzen zenik. Besteen txanda iritsi zenean aurrekoek aurreratzen joan ziren pixkanaka pixkanaka helmugara iritsi zireneraino arte.

Oraingoan bai, Fernandok horrenbeste estimatzen zuen garaikurra eskuratu zuen eta gainera bere txakurra izateaz gain otsoa ere berarekin gelditu zen betirako.

Paul Isasi



L.H. 3.zikloa

Sare Bilbao Monasterio

"Irudimenak lagunduta, nagusitan margolari famatua izatea gustatuko litzaidake"

# "Irudimenaren erreinua"

IRUDIMENAREN ERREINUA

Bazen behin Amaia izeneko neskatxa jostalari eta alai bat, oso bihurria zen eta beti zegoen zerbait egiten. 10 urte zituen, eta bere aita bigarren bider ezkontzeko zegoen. Asteburu batean ezkontza ospatzera joan ziren jatetxe batera. Jatetxe horrek lorategi oso handi bat zuen lorez eta landarez beterikoa.



Amaia aspertuta zegoen eta lorategia esploratzera joan zen. Lorak usaintzen, eta tximeletekin jolasten, zerbait ikusi zuen mugitzen eta bere atzetik joan zen. Bapatean bedarrez estalita zegoen zulo batera erori eta lurrera iritsi zenean txori antzeko animali bat ikusi zuen eta berarekin hizketan hasi zen:

- Non nago? galdetu zion Amaiak.
- Irudimenaren erreinuan - esan zion txoriak.
- Eta nola itzuli naiteke errealitatera?
- Hiru mundu pasatu behar dituzu: izozko mendiak, gozokien hiria eta azkenik suzko gaztelua.
- Eta nola iritsiko naiz lehhengo mundura?
- Ikusiko duzu... - erantzun zion txoriak.

Orduan Amaia bildurtuta norbait aurkitzera joan zen, berari laguntzeko abentura hartan. Oinez zebilela gizon arraro bat aurkitu zuen. Gizon hori Ausart deitzen zen eta ezpataria zen, eta Amaiari lagunduko ziola esan zion; eta izotzezko mendietarantz habiatu ziren.

## * IZOTZEZKO MENDIAK *

Orduak eta orduak oinez ibili eta gero pista bat aurkitu zuten harri batean idatzirik:
Mendi hauek pasatzeko giltz eskutua aurkitu behar da. Eta ikusmugan zerbait dizdiratsua ikusi zuten koba batean, eta hara sartu ziren. Han hartz zuri bat zegoen giltza zintzilikari moduan zuena.
Ausartek bere ezpata atera eta hartzarekin borrokatu eta hil egin zuen. Atzean zuten ate batetik sartu eta gozokizko hirira pasatu ziren.



# GOZOKIZKO HIRIA

Atetik pasatzerakoan urrunean txokolatez eginda zegoen gizon bat ikusi zuten, berarengana joan ziren suzko gazteluaren bidea galdetzeko eta gizonak esan zien bera atezaina zela eta suzko gaztelura joateko asmakizun bat erantzun behar zutela eta hau esan zien:

- Ze osagaik ematen dio zaporea gozokiei?

Ausart eta Amaia pentsatzen geratu ziren...
eta erantzuna zuten - Azukreak!
Bapatean atezaina desagertu eta atea idi zen.

# SUZKO GAZTELUA

Pasatu eta suzko gazteluan zeuden errege gaizkilearen aurrean, erregeak esan zien bere dragoiarekin borrokatu beharko zuela haietako batek. Ausartek pauso bat aurrera eman eta berak borrokatuko zuela esan zuen. Landa itxurako leku batera joan ziren eta dragoia hegaz iritsi zen eta borroka hasi zen. Ausartek dragoia harrapatu eta gainean jezarri zen. Ezpata samatik sartu eta hil egin zuen, momentuan Amaia jatetxean agertu zen...





L.H. 3.zikloa

Irati Otazua

"Korrika egitea eta liburuak irakurtzea gustuko dut"

# "Neska gezurtia"

## Neska Gezurtia

Bazen behin Maria deitzen zen 11 urteko neska bat. Maria ez zen ikasle ona, ordenagailuaren aurrean denbora lárregi pasatzen zuen eta ez zuen askorik ikasten.

Egun euritsu eta hotz batean klasea bukatzean Maria etxerantz joan zen korrika, eta heltzean negarrez hasi zen esanez:

- Ama ezin dut gehiago!
- Zer ezin duzu? - esan zion amak arduraturik.
- Gaur plastika izan dugu eta eskulan bat egin behar nuen. Nik ez ez dut izan kolarik eta irakasleak esan dit hobetu beharra aterako dudala - erantzun zion negarrez amari.

Amak besoetan hartu eta esan zion:

- Egon lasai, hori edonori gertatu ahal zaio.
- Baina niri egunero esaten dit.
- Orduan badakizu zer egin; klasean egin beharrekoa orain egin beharko.

Maria bere logelan sartu zen lanak egiteko itxurak eginez. Baina normalean atea ixten zuenean ordenagailuan jolasten ibiltzen zen lanak egiten aritu beharrean. Beti bezala, egun horretako lanak ere ez zituen amaitu.



Mariak bazuen lagunmin bat Idoia deitzen zena eta sekretu guztiak kontatzen zizkion berari. Idoiak bazekien nota eskasak ateratzen zituela.

Hurrengo egunean Maria eta Idoia hizketan hasi ziren jolasorduan. Mariak aitortu zion etxean apropos egin zuela negar andereñoak amarekin bilera izango zuelako eta gero bere amak ez botatzeko bronkarik. Idoiari ez zitzaion gustatu zer egin zuen eta haserretuta honela esan zion:

- Maria, nik badakit zein notak eskasak ateratzen dituzun eta nota horiek mereziak dituzu ez duzulako egiten ahaleginik. Egin duzuna ez zait batere gustatzen.

Hori esanda Idoiak alde egin zuen haserreturik.

Maria bakarrik sentitu zen egun osoan. Eskolatik irten eta etxerantz joatean Idoiarekin topo egin zuen. Mariak esan zion:

- Kaixo Idoia.

Idoiak parkamena eskatu zion haserretuta alde egiteagaitik.

- Sentitzen dut baina ezin dut onartu amma horrela engainatzea. Ez pentsatu zeuk bakarrik dituzunik arazoak ikasketekin. Neu ere gaizki ibiltzen nintzen matematikan ez zitzaidalako arlo hori gustatzen eta ez nuelako behar beste lanik egiten. Baina lan gehiago eginez gero nota hobeak ateratzen nituela ikusi nuen; horregatik ahalegintzen naiz horrenbeste orain eta, ikusten duzunez, nota onak ateratzen ditut arlo guztietan.

Maria isil-isilik entzuten ari zen Idoiak esandakoa.

- Tratu bat egingo dugu: - gaineratu zuen Idoiak - Amari kontatzen badiozu zer egiten ibili zaren, ni prest nago zure etxera joan eta plastikan zein beste arloetan zuri laguntzeko.

Mariari egokia iruditu zitzaion Idoiaren proposamena eta, ezer baino lehen, amari kontatu zion dena. Orduan amak zigortu egin zuen bi astetan etxetik irtetzen utzi gabe. Txintik esan gabe bete zuen zigorra, bazekielako oso txarto jokatu zuela.

Horrerantzean behar zuen guztietan joaten zitzaion Idoia etxera eskolako lanetan laguntzera eta Mariak ahaleginduz gero nota hobeagoak ateratzen direla ikasi zuen.



L.H. 3.zikloa

Aiara Elejalde Iturbe

“”Niri saskibaloia eta lagunekin egotea asko gustatzen zait”

# “Jon eta bere itzal misteriotsua”

## JON ETA BERE ITZAL MISTERIOTSUA

Bazen behin, 10 urteko mutiko bat Jon deitzen zena.

Jon oso alaia zen, begi urdinak zituen, zerua bezalakoak, eta nahiko txikia zen. Jonek itzal misteriotsu bat zuen, baina berak ez zekien.

Egun batean, parkera joan zen lagunekin jolastera, eta han elkartu ziren lagun gustiek: Mikel, Paule, Naiara, Laura, Beñat eta Jon. Denek joan ziren parkeko jesarleku batera eguzkia hartzera. Eta bat-batean Mikelek esan zuen:

- Aizu Jon, ez daukazu itzalik!

Eta esan zuen Laurak:

-Agian Jonen itzala misteriotsua da.

Eta Paulek esan zuen:

- Ba orduan goazen bilatzera.

- Bai! - oihukatu zuten denek batera.



Parke gustitik ibili ziren, baina ez zen agertzen. Berandu izan zenez, etxera itzuli ziren.

Jon etxera heldu zenean, telefonoak jo zuen. Naiara zen, eta esan zion hurrengo egunean sare batekin joateko.

Goiza heldu zen, eta Jon parkera joan zen eskatutako sarearekin, han zeuden bere lagunak bereren zain.

Jonek oraindik ez zuen itzalik, eta bilatzera joan ziren.

Parkean ez zegoenez, basora joatea erabaki zuten. Basora heldu zirenean, banatzea erabaki zuten, Mikel, Paule eta Naiara alde batetik, eta Laura, Beñat eta Jon, beste aldetik.

Basoan barrena joan ziren bi taldeak, baina ez zuten ezer aurkitzen.



Laku batera heldu ziren, eta han elkartu ziren bi taldeak, bertan igelak eta arrainak ikusi zituzten, baina itzalik ez.

Bat-batean, Beñatek zerbait ikusi zuen,



itzala zen, sareekin harrapatzen saiatu ziren, baina ihes egiten zuen, ezin zuten harrapatu eta berari jarraitzen kobazulo batera heldu ziren.

Kobazulo horretan ez zekiten zer gertatuko zen.

Nahiko beldurtuta zeuden!

Jonen itzalak, krokodiloen putzu batera eraman zituen Jon eta bere lagunak.

Krokodiloen putzu hori pasatu behar izan zuten, eta hori pasatzeko, enbor batzuk zeuden, pasatzen ari ziren, eta halako batean:

- Kontuz, kontuz! - entzun zen.

Ahotsa zetorren lekura begiratu, eta han ikusi zuten Mikel ia ia jausten.

Krokodiloen putzua pasatu ondoren, Jonen itzalari jarraituz, gela batera

heldu ziren, bertan herensuge erraldoi bat zegoen, bere aurka jokatu behar izan zuten, eta horretarako Jonen itzalak espata batzuk utzi zizkien. Dragoiaren aurka jokatzen hasi ziren. Baina ez ziren nahikoak izan espatak, beraz, Jon eta bere lagunak, gela horren inguruan zeuden antortxak hartu, eta dragoia erre zuten.

Dragoia erre ondoren, aurrean zegoen ate bat ireki zen, eta horren barruan, giltz disdiratsu bat zegoen, hain zen disdiratsua...! Jon hurbildu eta giltza hartu zuela, giltza hartu ondoren, zerbait zoragarria gertatu zen! Jonek bere itzala berreskuratu zuen, eta Jon eta bere lagunak oso pozik jarri ziren.







Izaskun Izagirre Urizar

"Trikitixa jotzea eta ingurukoekin euskaraz aritzea gustuko dut"

# "Opariririk baliotsuenak..."

## OPARIRIK BALIOTSUENAK...

Behinola Munitibarren gertatu zen istorio hau.

Bizkaiko herri eder hau Lea-Artibai eskualdean dago kokatuta, Oiz mendiaren magalean, Lea ibaiak zeharkatzen duelarik.

Bertan baserri batean Nikole izeneko neskatxa bizi zen bere aiton-amonekin eta gurasoekin. Neska eder eta atsegina zen, bere begiak itsasoa bezain urdinak ziren, ilea horia zen eta hortzak elurra bezain zuriak zituen. Familia apaltxoa zen, ama josturna zuen eta aitak gaixorik zeraman denboraldi luzea, kentzen ez zitzaion sukarra zeukan eta. Sendagileek ez zekiten ze gaixotasun zuen. Amona etxeaz arduratzen zen bitartean, aitonak nekazari lanak egiten zituen eta astebukaeretan neskatoak ortuariak saltzen laguntzen zion. Amak gogor lan egin behar izaten zuen txanpon batzuk etxera eramateko.

Bizpahiru asteren buruan neskak 10 urte beteko zituen eta bere ametsa Nancy panpina edukitzea zen. Gurasoek ez zeukaten nahi adina diru panpin hau erosteko oso garestia baitzen. Azkenean amak eskuz egindako jertse polit bat oparitu zion. Nikole erregalua hartzerakoan buru makur, haserreturik eta amari hitzik egin gabe geratu zen, bere ametsa panpina eskuratzea zelako. Egunak joan eta egunak etorri, neskak ez zuen jarrera aldatzen, berdin jarraitzen zuen, burugogor.

Urriko lehen larunbata heldu zen, egun haizetsua, Nikole bere aitonarekin azokara abiatu zen. Bertako jendetza izugarria zenez diru ugari bildu zuten aiton-ilobek. Azken orduan atso bat hurbildu zitzaien erosketak egitera eta neskaren laguntza eskertzeko, lurraren itxura zeukan gasezko puxika koloretsu bat oparitu zion.

Momentu hartan haize bolada bortitzak jo zuen herriko plazan eta Nikole bere puxikarekin zerurantz abiatu zen. Ordurak igaro ondoren haizea baretzen ari zela nabaritu zuen neskatxak eta lurretik gero eta hurbilago zegoen. Neskatila beste herrialde batean agertu zen. Leku hura guztiz ezezaguna egiten zitzaion, bertako bizilagunen azalaren kolorea marroizka zenez Afrikan zegoela ohartu zen, Angolako hiriburuan, Luanda hirian alegia.

Txabolaz inguraturik zegoen neskatila, bertako umeak oinutsik zebiltzan, jolasean pozik nahiz eta goseak amorratzen egon. Nikole beraiei begira zegoela atso bat hurbildu zitzaion eta txabola batera eraman zuen. Salda beroa hartzera gonbidatu zuen eta eurekin gelditzeko eskatu zion. Zur eta lur geratu zen bertoko egoera ikusita berak pentsatzen baitzuen bere etxekoa zela pobreenetarikoa.

Txabolatik kanpora irten zenean emakume pare bat ikusi zuen. Haiek bizkorrak eta liraiñak ziren, denetarako prest zeuden eta boluntario joan ziren bertako umeei laguntzera. Neskatilak, hauek ikusterakoan bertakoekin alderatuz desberdinak zirela konturatu zen beraz beraiekin hitz egitea bururatu zitzaion. Pentsatu eta egin, elkar ulertzen zutela ikusi ondoren neskatxa izugarri pozta zen beraiekin bueltatzea pentsatu baitzuen. Baina andre haiek hilabete bat pasatzeko joanak ziren, nahiz eta hamabosta geratu etxera itzultzeko. Egun haietan Nikolek ere lan ugari egin zuen, beste emakumeen antzera. Hango ohiturak ezagutu zituen, bertako egoera berearekin konparatu zuen eta bidaia hura egitea komenigarria izan zela ohartu zen.

Etxera bueltatzeko ordua iritsi zitzaien, andre haiei eskerrak eman ostean, elkarri helbidea eman zioten gutunak idazteko. Neskak, bere familiakoekin elkartu bezain laster, barkamena eskatu zion amari oso gaizki jokatu zuela konturatu

baitzen. Aitak hoberantz egin zuela ere esan beharra dago eta Nikole inoiz baino pozago jarri zen, bere nahia aita sendatzea zen eta. Neskaren jokaera aldatu zela ikusita gurasoei panpina oparitzea bururatu zitzaien.

Neskatila ikasbideaz jabetzea zen bere gurasoen helburua eta halaxe izan zen, hau da, munduan maitasunez egindako opariak dira baliotsuenak eta guk ere esker onekoak izaten ikasi beharko genuke.



Izaskun Irazgirre Urizar 5-A